

Xabier Letona



DANI BLANCO

Fundazioak, konfiantza ezaren arrazoiak

ZERGATIK ez dago euskal gizarteko sektore zabaletan konfiantzarik Kutxabanken pribatizazio prozesu honetan? Funtsean, azken bizpahiru hamarkadetan finantza munduaren norabidea etekin basatia bilatzera bideratua izan delako eta horrek eragin duelako 2008tik aurrera bizi den krisi ekonomiko larria. Krisiaren azterketaren analisia gehienetan aipatu izan da finantza mundua askeegi zebilela eta funtsezkoa zela bere norabidea birdefinitu eta oinarri berrietan botere publikoen kontrol handiagoa finkatzea. Ez dago horrelakorik, ordea, eta finantza munduaren indarrak ez die utzi botere publiko-
ei beraiek izan daitezen birfundatze etiko eta ekonomikoaren gidariak. Horren adibide asko dago. Orain, adibidez, EBko bederatzi estatuk Tobin tasa indarrean jartzea 2016ra arte atzeratu dute eta finantza eragiketei jarriko zaizen zerga hasieran aurreikusitakoaren hamarrena izan liteke (%0,1etik %0,01era).

Gertuagoko deskonfiantza arrazoiak ugariak dira. Esate baterako, PP eta PSOE izan dira Espainiako aurrezki kutxen sarea desegin dutenak: lehenik barrutik, Espainiako aurrezki kutxak adreiluaren burbuilan itotzera bideratutako kudeaketarekin; eta hondamendia eragin

ondoren, geratzen ziren arrastoak banku handien eskuetan jarritz, eta diru publikoa finantza munduaren erreskatera bideratuz.

Euskal kutxetan, lautik hiruk hobeto erantzun zioten finantza burbuilaren leherketari, baina ez ondorio larri barik: adreiluak hauek ere gogor kolpatu zituen eta sektorearen birmoldaketak lanpostu eta bulego ugariren itxiera ekarri du. Baina laugarren kutxaren amaiera ere hor da eta CANen hondamendiak nabarmen elikatzen du egungo konfiantza eza.

EAJ-REN jarrerak ere susmo txarrak eragiten ditu. Kutxak fundazio bihurtzearena Europako Batasunak eta Espainiako Legeak agindutako prozesua dela azpimarratu du etengabe, bai ala bai bete beharrekoa, baina ez du prozesu hori salatu –LOMCErekin bezala, adibidez–; ez du bere desadostasuna agertu eta argudiatu. Aitzitik, prozesua aukera gisa saldu du, legeak pribatizazioa bultzatzen duela onartuz, baina egiazki kutxen izpirituan aldaketarik ez dela egongo salduz, fundazioen kontrolaren bermea konfiantzazko pertsona talde batean oinarrituz. Baina kutxen patronatoen kontrolean Espainiako kutxa sarea

desegin duten PP eta PSOE badi-ra, nola ez pentsatu azeria jarri dela oilategiaren zaindari?

Thomas Piketty ekonomialari frantziarraren *Le capital au XXI^e siècle* (Kapitala XXI. mendean) liburu ospetsuaren funtsa da aberastasunaren banaketa gero eta desegokiagoa dela. Horretarako azken mende eta erdian munduko herrialde garatuenetan egindako azterketa erraldoia jarri du mahai gainean. Besteak beste zera dio: azken 150 urteetan ekonomia %1-2 hazi da urtero eta finantza mundua %4-5. Eta honakoa azpimarratzen du ondorioetan: “Aberastasunaren banaketaren historia, sakonean oso historia politikoa da eta ez litzateke mugatu behar bakarrik mekanismo ekonomikoetara”.

Finantza merkatuen indarra azken mende eta erdiko handiena da egun. Bere eskutik datoz krisia zein irtenbidea. Nola izan konfiantza 15 pertsonako talde batek hobeto eutsiko diela presio horiei Batzar Nagusiek edo Eusko Jaur-laritzak berak baino? Egia, alternatibei buruz oso gutxi entzun da, baina euskal kutxen egungo norabidea beldurgarria da ■



HARPIDETZA ARDURADUN
LANPOSTUA
argia_n

Bide berriak irekitzera goaz. Kide bat behar dugu, gure proiektuarekin identifikatzen dena, harpidedun eta irakurleekin aurrez aurreko harremanak saretzen aritzeko

Ezaugarri hauek bilatzen ditugu:

- ARGIArekin identifikazioa
- Harremanetarako gaitasuna eta harreman sarea
- Komunikazio ikuspegia
- Iniziatiba
- Kudeaketa gaitasuna
- Esperientzia herri mugimenduetan

Bidali curriculumua **uztailaren 11 baino lehen** helbide honetara: estitxu@argia.com
Hautatuekin harremanetan jarriko gara.